



Izenburua	Euskaraz jarduteko aktibazioa: ideia zenbait Psikologia Sozialetik
Egilea	Eduardo Apodaka
Data	2013/02/28

aurkibidea

1. Sarrera	02
2. Hizkuntza-jarduna eta komunikazio egokitua	02
3. Jokaera-aldaketaren gakoak: zentzugintza	05
4. Hizkuntza-praktikak eta euren egokitzapena	07
5. Komunikazio-jardueretan zer dagoen jokoan: azterketa integralerako ereduak.....	11
6. Bukatzeko gogoeta	15
7. Ohar bibliografikoak	15

1. Sarrera

Izenburuak dioen bezala testu honen helburua euskaraz jarduteko aktibazioari Psikologia Sozialetik egin dakizkiokeen hainbat ekarpen aurkeztea da. Bistan da ezin ditudala Psikologia Sozialak gaiaren inguruan ekar dezakeen guztia aurkeztu. Baina nire iritziz funtsezkoak diren ideia batzuk azalduko ditut. Ardatz baten inguruan jardungo dut: euskaraz jardunaraztea komunikazio-praktiketan esku hartzea da, jendea eta jokaerak aldatzea, eta interbentzio hura ere komunikazio-praktika denez eragile adituak azterketa bikoitza egin behar du, alde batetik jende arruntaren komunikazio-praktikak aztertuz eta bestetik, baina aldi berean, hark haiekin dituen komunikazio-praktikak ere behatuz eta kudeatuz. Guztietan gakoa zentzua da: hura da jokaera bati eusteko edo bertan behera uzteko gakoa. Komunikazioan inplikaturik diren guztiek dihardute "zentzugintzan"; izatez, gatazka antzeko tira-bira da zentzuak sortzea eta eraldatzea. Eta (komunikazio-) gatazka horietan gutxitan du "adituak" leku pribilegiaturik. Leku hori gabe, lan kontziente eta erreflexiboagoa behar du, hori zian daiteke abantaila bakarra. Horretan lagundu nahi lioke testu honek.

2. Hizkuntza-jarduna eta komunikazio egokitua

Hizkuntza-jardunak komunikazio-harremanak dira, horiek aztertu nahi baditugu, eta horietan esku hartu, ez du zentzurik harremanaren osotasunetik kanpo egitea. Askotan, baina, ikuspegi murrizta dugu eta hizkuntza kode bat edota adimen-gaitasun bat baino ez delakoan bezala aritzen gara. Oso ikuspegi instrumentalista eta kognitibista dugu hizkuntzaz eta komunikazioaz eta hori da agian aldatu beharko genukeen lehendabiziko kontua.

Instrumentalista diot, maiz pentsatzen dugulako hizkuntza hor kanpoan eskura dugun tresna bat baino ez dela. Komunikazio-harremanetan erabili ahal dugu helbururen bat lortze aldera, eta erabili ostean hartu dugun tokian utzi, beste edozein tresna bezala. Baina hizkuntza norberaren baitan hura baino gehiago da: hizkuntzak ez dira kanpo-tresnak, askotan harremanetarako ditugun "gaitasun", "ahalmen" edo "kapital pertsonalak" dira eta horrenbestez norberaren autokontzepturako eta norberaren aurkezpenerako eta balioztatzerako euskarri edo galbide. Eta are gehiago, maiz hizkuntzaren bat erabat intimo dugun matrize egituratzailea da, hau da, gure bizi-munduaren eta gure mundu harekiko irekidura eta uztardura bera da (mundu hura "psikearen mintza" zaigu mintzoei esker).

Eta *kognitibista*, azken finean, berdindu dugulako hizkuntza gogoamenaren (eta askotan ere, arrazoiaren) baliabide batekin: kodea, gramatika, hizkuntza-sistema edo, izenak izen, azpisistemen konbinazio eta egituratzeen bidez apailatzen dugun "tresna bat".

Bi ezaugarri horiek batera pentsatuta, berehala agertzen zaigu "*kanpo-behatzaile erreflexiboaren irudia*". Behatzaile hura behatzetik inoiz joko-zelaira jauzi egiten badu, ez da guztiz inpliketzen jokoan. Beti mantentzen du behatze-jarrera bat, jokalaria estrategiko eta arrazionala da, kalkulua da haren logika nagusia.

Baina, kontrara pentsatuko bagenu (adibidez, hizkuntza-jarduerak jendarteko harremanak direla, gogo-gorputz arteko egokitzeak direla) guztiz inplikaturik den jokalariaren jarrera eta jokaera naturalak ikusiko genituzke. Halako jokalari batek bere burua jartzen du jokoan, sentimenduz eta emozioz beterik, gogoeta hotz eta urruna egin beharrean berehalako erantzunak ematen ditu jendarteko harremanetan, ondo daki bere jokaera partida eta unearen arabera egokitzen, ez baitu bere burutik mintzoa arrotzu.

Egia da oso jende psikologizatuak garela eta aipatu dudan eredu estrategiko, kognitibista eta instrumentalista oso gurea dela hainbat eta hainbat komunikazio-harremanetan. Baina oker ibiliko ginateke horretara mugatuko bagenu gure hizkuntza-erabilera. Hizkuntza ez da bakarrik kode edo gramatika bat, ez da soilik funtzio kognitiboek behar duten adierazpidea, hizkuntza jendarteko jokoa da beti, hartan jendeak partaide eta eragile dihardu.

Horrenbestez, **ikuspegi integrala** behar dugu hizkuntzaren bat hautatzea, ikastea eta erabiltzea aztertu nahi ditugunean. Eredu holista bat behar dugu, hainbat ezaugarri argirekin: komunikazioa harreman-prozesu zirkular, konplexu eta dinamikoa da, elkarrekintzazko prozesua, osagaiek elkarri eragin diote etengabe. Elkarren arteko harremanetan antolatutako unitate osoa omen da komunikazio ekintza, baina unitatea izanik ere, ez dago ez komunikazio-ekintza isolaturik, ez besteetatik funtziona dezakeen komunikazio-sistematik. Komunikazioa gainera beti izaten da praktika bat, lekuan lekukoa, sortzailea (kodeak etengabe sortu behar dituena) eta atzera egokitze etengabea izan behar duena. Komunikazioa komunikazio-praktika partzialen sistema konplexuen bategitea da: ahozko eta ez ahozko sistemak, linguistiko eta paralinguistikoak, zinetikoak eta proxemikoak... Eta sistema hauen guztien barruan azpisistema asko ditugu: hizkuntza, begirada, jarrerak...

Bestalde, komunikazioa harreman psikosoziala da, esan nahi baita, komunikazio-praktiketan sortu, eraldatu eta desagertu egiten dira norberaren disposizioak (sentimenduak, jarrerak, pentsabideak, oroitzapenak...) eta jendarteko dispositiboak (egiturak, antolabideak, erakundeak...). Eta sortu, eraldatu eta desagertu egiten direla esan dut izatez aipatu ditudan disposizio eta dispositibo horiek ez direlako ez gai, ezta eduki bat, komunikazio-praktikak direlako. Hautemate-eskala baino ez dugu aldatzen izenak aldatuta.

Horrenbestez, hizkuntza-aldaketa eta hizkuntza-atxikimendua ez dira kode baten (mintzaera edo hizkera bat) uztea edo atxikitzea, jokaera-aldaketa eta jokaera-atxikimendua da. Kode bat utzi eta hartzean baino askoz gehiago dago jokoan komunikazio-praktikak eraldatzen ditugunean: norberaren hainbat disposizio, jendarteko dispositibo zenbait, haien artean ondo identifikatu ahal ditugun norberaren aurkezpen-estilo eta balioztatze-ahalegina eta harreman sozialak izateko moduak.

Azkenik, komunikazio-praktikak, jendarteko harremanak diren aldetik, etengabe ari dira aldatzen, oso sortzaileak gara ezinbestez, baina saiatu izugarri saiatsen gara egonkortasuna lortzen. Hainbat modu orokor eta iraunkorretan izaten gara, usadioak gara. Baina hori dena, egoera jakinetan izaten da: komunikazio-praktikak beti izaten dira egoeran egoerakoak. Abstrakzioa eta orokortzea horretarako sistemak bitartekari dihardutela baino ezin da lortu, esaterako, ideologia edota hedabide orokorrekin hala gauzaturik. Euskaraz, are gutxiago ahozko jardunetan, ez dira horiek indar handikoak eta gehienetan oso "kokaturik" dauden komunikazio-egoerak aurkituko ditugu: euskaraz jarduteko norberaren disposizioa oso mugatua izaten da, euskaraz jarduteko jendarteko dispositiboak mugatuak direlako.

3. Jokaera-aldaketaren gakoa: zentzugintza

Geroago itzuliko naiz komunikazio- eta hizkuntza-jardueretara. Orain oinarri bat behar dut jokaera-aldaketaz hitz egiteko. Zer dela eta aldatzen ditugu jokaera-modu batzuk eta ez besteak? Noiz bai eta noiz ez? Eta nola eragin diezaiokegu, zer ukitu behar diogu zehazki, beste inori jokaera alda dezan?

Jokaera-atxikimenduaren gakoa zentzua da. Jokaera guztiak ez dira berdinak eta eduki dezaketen zentzua eta hura edukitzeko modua ere ez:

- Batzuk oso gorpuztuta ditugu, gure izateko moduak dira, ez ditugu erraz aldatzen gure buruaren izate- eta egituratze-moduak direlako, gu gara hori. Jakina denez halako jokaerek izen anitz izan dituzte zientzia sozialetan, aspaldi berreskuratu da **aztura** kontzeptua, hori bai ikuspegi soziologiko batetik Pierre Bourdieu soziologoaren lanengatik (berak, ezagun denez, *habitus* erabili zuen: gutxi asko, harreman eta egitura sozialetan kokatutako aztura multzoak, norberarengan *nortuta*)
- Beste batzuk, ordea, ez dira espontaneoak, ez dira gorputzaren erantzunak, gogamenak parte aktibo eta esplizitua hartzen du estimulu eta erantzunaren artean, eta hala, gogoeta larri edo arina eginez, norberak erabakitzen du zer egin. Halakoei **ekintza** deitu zaie usu, horietan argi agertzen da erabakimena eta horrekin batera omen doan arrazionalizazioa.

Lehenengoak, beraz, biziera sozio-sinbolikoari loturik doazen praktikak dira. Bourdieuk jarrera natural zeritzona, hau da, jokoan ari denaren bizi-jarrera engaiatua. Orokorrean, azturek "izateko modu kontsuetudinarioa" osatzen dute, beti jasotakoari jarraikiz eta eredu kolektiboen ildoetatik doan ohiturazko jokatzeko-modua.

Bigarrenak, berriz, behatzaile "alfabetatua" baten jardun kritiko edota kalkulatazaileei dagozkie. "Alfabetatua", bistan da, jokaeraz eta portaeraz: bere burua jokalarik estrategikoki gisa ikusi ahal izateko, jokoaren arauak eta jokaldi posibleak zein diren jakin behar du. Eta bere buruari "azaldu" behar dio zer gertatzen ari den.

Nik hemen **praktika** kontzeptua erabiliko dut biak batze aldera, baina biak nahasi gabe. Esan daiteke bizi-formetan ondo errotuta dauden jokaerak praktikak direla (horietan "gu praktikatzeko gara" gu garenez) eta baita norberaren ekimenez hasi diren ekintza-ildoak ere praktika direla (horiek "praktikatzen ditugu" gu hala edo horrela izan nahian, hori edo hau lortu asmoz). Bistan da, praktiken zentzua oso bestelakoa izango da praktikaren helburua bizitzea baldin bada (eta haietan "gu" nolabait praktikatzeko bagara esplizituki xede hori kalkulatu barik), edo bestela, praktiken helburua asmoz eta erabakiz ezarritako interes edota xede jakin bat baldin bada.

Horren haritik ikus dezagun Max Weber soziologo klasikoak nola sailkatu zituen praktikak zentzuaren arabera (kasurako, helburuaren arabera), oso sintetizaturik honela planteatu ahal da:

- Jokaera arrazional teleologikoa, edo instrumentala: xederen bat lortu nahi dugu, beraz, zentzua xede hura da, eta arrazionala izango da bitarteko eta xedeen arteko harremanaren arabera.
- Jokaera arrazional axiologikoa, balioen arabera erabakitako ekintza. Balioek bultzatzen dute eta haiek ematen diote zentzua ekintzari.
- Jokaera afektiboa, emozio eta sentimenduengatik ekintza. Kasu honetan, praktika adierazkorra dugu, zentzua adierazitako horretan bezainbat, adieraztean bertan dago (unean uneko adierazpenak dira halakoak)

- Jokaera tradizionala, ohiturari atxiki zaion ekintza. Zentzua egindako eta jasotakoari eustea da.

Horrela ikusita, ekintza edo berariazko praktika lehendabiziko bietara mugatzen da. Haietan zentzuaz oharturik dihardute subjektuek: badakite hala edo nola azaltzen zein den egiten ari diren horren zentzua (zertarako edo zergatik egiten duten) eta gainera egin aurretik kalkulu minimo bat egin dute (erabakia hartu dute, hain zuzen),

Azken biak, berriz, "irrazionalagoak" dira ikuspuntu instrumentalista batetik, baina berehalako zentzu immanentea dute, esan nahi baita, berekin dakarte zentzua eta ez dago zentzua planteatu beharrik: jokalariek bizi dute zentzu hura, haiek diren eran izaten direnean.

Guztiak zentzuz ondo horniturik doazenean "praktika esanguratsuak" dira. Zentzua galtzen dutenean subjektuek bertan behera utziko dituzte eta "zentzudun praktika" berrietara joko dute. Edo, lehengoari zentzu berria asmatzen saiatuko dira, bestelako artikulazio baten bidez. Giltza, "erreferentzi marko handiago" batean jokaera (oro har, sinbolo edo zeinu izaera izan dezakeen edozer) kokatzea da, alegia, nondik nora jo behar dugun (zein den hurrengo urratsak eta zein izango diren ondorengoak) esango digun marko batean kokatzea. Bestela esan, zentzugintza jokaerari esangura emango dion kode bat ezartzea da. Esangura hemen praktika-katea artikulatzea da: ulertzen dut egiten dudan horrek duen esangura/zentzua dakidanean zertarako edo zergatik egiten dudan, nahiz eta maiz jakite hori oso mugatua izan (faktikoa: egiten dugu hala egiten dugulako). Beraz, praktika edo aztura batek zentzu zenbait du praktika-kate batean kokatu dugunean: testuingurua du, erreferentzia-marko batean dago, eta jakin dezakegu zein den egiteko *motiboa* (motibagarriak dira, azken finean, marko horien erreferentzia-puntu nagusiak, edota praktika-katean sumatu diren aurreko praktikak eta, batez ere, jendarteko portaeran, ondorengo praktikei antzeman diezaiekegun ondorioak: zer gertatuko den hau edo hori eginez gero...?)

Zentzugintza bi muturretara eramanez gero, lankidetzeta eta gatazka izango genituzke aukeran. Aldaketa orotan biak topatu ditugu, ezinbestez. Prozesu horiek, azken finean, eragite- eta aldatze-prozesuak dira: berrikuntza, normalizazioa, konformatzea, agintea, behartzea... Horietan guztietan aldaketaren pizgarria "zentzua galtzea" eta "zentzua berregitea" da. Esaterako, mutur batera joanda, norbait portaera aldatzera behartu nahi badugu "behartzea" da eragin nahi diogun portaeraren zentzua, eta ez du halakorik izango behartzeko indarrik ez badugu. Berdin beste edozein aldaketa-bidetan: zentzua aldeztu aurretik ezarrita ez badago, hura "negoziatu" beharko dugu. Ba al dugu horretarako nahikoa indarra eta gaitasuna?

Oro har bi dira "zentzuak" agerian uzteko, artikulazio berriak sortzeko eta lan praktiko-diskurtsiboa egiteko moduak, normalean batera doazenak:

- Praktika berriak eginez, eta egitearen normaltasuna ikusaraziz: aztura berriak ezartze aldera, arauzko jokaera berria *de facto* ezarritik. Horretarako egituretan, legeetan edo besterik gabe, izateko moduetan esku hartzeko ahalmena behar da,. Hala ere, "gutxiengo aktibo" batek birdefinitu dezake zer den normala (arauzkoa) jokaera "berri" bati eutsiz, gehiengoari praktika horren "zentzu-balio erantsia" jokatze hutsez erakustea lortzen badu.

- Praktikei artikulazio diskurtsibo esplizitua emanez: artikulazio berri batez ohiko praktika batek beste zentzu bat hartu eta testuinguru berri batera egokitu ahal da, edo kontrara, praktika batek zentzua galdu ahal du bestela artikulatzen badugu. Kasu honetan, komunikazio-gatazka dugu, ideologien eta iritzien lehia. Eta kasu honetan ere, gutxiengo nomiko aktibo batek zerbait lor dezake euren ideia berriak erakuste aldera "ikusgarritasun" handia lortuta, ideia horiek jende gehienak dituen balio edo ohiko pentsamolde baliotsuekin artikulatzen baditu. Hau da, batetik joko-estilo baten bidez besteen arreta eta begirunea bereganatzen baditu, eta bestetik diskurtso-estilo baten bidez (eta ez dago argi bi horiek bereizterik dagoen) jendearen zentzuekin artikulatzen badu "proposamen berria".

Sarritan zentzua ez da bakar bat, hainbat izan daitezke, ez da egonkorra (oso dinamiko eta aldakorra izan daiteke) eta negoziazio inplizituen indarra eduki dezake, hau da, subjektu artean eztabaidatzen ez den adostasun faltsu batena, edota berariak zalantzan jarri ez den arauzkotasun batena.

Jokaera-aldaketa, diote adituek, azaleko eta iragankorra izango da testuinguruan baino ez badugu esku hartzen, pertsona bera aldatu beharko genuke aldaketa hura luze, iraunkor eta endogenoa izan dadin. Pertsona aldatzea diotenean haren disposizioetan pentsatzen dute: jarrerak, iritziak, balioak, pentsatzeko moduak, gaitasunak, eta abar. Egoera aldatuko bagenu, askoz jota egoerarekin batera desagertuko litzatekeen aldaketa bat baino ez genuke lortuko. Pertsonak aldatzea, jakina, pertsonak konbentzitzea, liluratzea, pertsuaditzea edota hezteka da. Hori izan da gure eredu nagusia, benetan pentsatu dugu "komunikazioaren bitartez" jendea gure iritzi eta nahietara erakarri eraldatu ahal dugula. Egia izan liteke, eredu humanistaren egia. Baina bada jendea aldaketa bera pentsatzeko beste modu bat: jokaera zuzenean aldatzen duena eta horretan geratzen ez dena, ez da joko-aldaketa hutsa. Pascal filosofoak zioen modura: "federik ez baduzu, belaunikatu eta hasi otoitz egiten, fedea etorriko zaizu..." Hasi jokatzeko eta gero etorriko zaizu hala jokatzeko motibazioa. Are gehiago, jendarteko joko aldatu bada, orduan denok dugu egokitze beharra: konformatzeko eta normal jokatzeko beharra. Noski, normala dena definitu beharra dago, definizioa berez lehengo gatazka hura da (zentzugintzarena) eta boterea, azken finean, normalitatean oinarritzen da eta (atzera eta elkar) elikatzen dira biak, boterea eta normalitatea. Egia esan, egoera eta jokaera zuzenean aldatzen dituzten esku hartzeak (legeena edota behartzeena esaterako) eraginkorrak dira aldi berean zentzu berriak ematen bazaizkio portaera berriari. Besteak beste, jendea protagonista delako eta zentzugintzan erreaktibo eta aktibo jokatzeko duelako. Jokaera-aldaketa oro, zabaldu eta nagusituko bada, espiral erako prozesu dialektiko, multilateral eta konplexu batean izango da. Ez da jendea, beraz, guztiz manipulagarria eta aldagarria. Ez da guztiz, baina izan bada, bagara: gehienetan norberaren jokaerak besteen jokaeren mendeko aldagaia da, hots, elkarren mende ari gara jarduna egokitzen.

Azken ideia bat: gaurko bizi-formetan ez dira praktikak errez artikulatzen "diskurtso handietan", ezta "erakunde kolektiboen estalduran". Gaur egun, nonbait, praktikek estaldura immanente behar dute, zentzua bere horretan behar dute, praktika bera izan behar da "esanguratsua" edo "adierazgarria" eragileentzat. Eta gainera, gaurko bizi-formetan aski handitu da jendeen "alfabetizazio psikosoziala" eta era estrategiko kalkulatuazilean ez bada ere, gehienetan gai dira era bikoitz batean jokatzeko: jarrera naturala dute eta aldi berean, praktika batean ari direla, euren burua, euren jokaera eta praktika bera analizatu eta distantziaz baloratu ahal dituzte.

Biak ala biak, uste dut, gaurko gure praktika gehienen ezaugarriak dira: jardunean bertan nahi dugu zentzua (esangura eta adierazgarritasuna) eta jarrera bikoitzaz, bizipena eta analisia uztarturik, dihardugu.

4 Hizkuntza-praktikak eta euren egokitzapena

Arestian esan bezala, hizkuntza-praktika aldatzea ez da soilik kode bat aldatzea, jokaera aldatzea da eta horrekin batera kasu askotan "pertsonaren dispozizioak" aldatzea. Bistan da, hizkuntza bat ikastea neurri batean ikasi duen lagun hura aldatzea da, baina zer esanik ez, mintzo hori erabiltzeko eta are gehiago norberaren ohiko inguruan erabiltzeko ikasi den kasuetan.

Hemen agerian utzi beharko genuke gure "hizkuntzari buruzko ideologia": testuinguru elebkarretan hazi eta hezi gaituzte, elebidunek anomalia gisa bizi behar izan dute euren dibergentzia, hizkuntzak ikastea orain dela gutxira arte oso esperientzia minoritarioa izan da eta gainera norma eta normaltzat jo dugu herri edo gizarte bat hizkuntza (nazional-kanoniko) batekin identifikatzea. Ideologia hori ez da soilik "diskurtso" bat, alderantziz, estatuak eta estatu-aparatuak ondo ahalegindu dira esperientzia naturala hura izan zedin: elebarktasun kanonikoa. Hitz gutxitan, hizkuntzari dagokionez, *habitus* kanoniko, nazional eta orokorra ezarri nahi izan dute "sozietate modernoek".

Baina euskaldunek ondo dakigu ez dela ahalegin hori burutu. Nahiz eta guk haren pistatik ahalegindu, zertara eta kontrakoa lortzeko: desagertu behar zuten hizkera asko, guztiz kontsuetudinarioak zirenak, iraun zezaten, eta hala eginez, kasu askotan aztura hutsa zena ekintza bihurtu genuen. Eta hizkuntza-praktika identitate-praktika eta ekimena bilakatu ziren.

Orain hori da dugun joko-eremua: hainbat tokitan euskarazko jardunak *aztura* izango dira, ohiko eta orokorrak, baina gehienetan, euskaraz egiten dugunean "berariazko ekimenaz" egiten dugu, *ekintza* dira. Eta normalizazioa, ustez, ohiko aztura oharkabeak izatea bada ere, harako bidea "erabaki esplizituz" egin beharko da.

Hizkuntza-jardun asko eta asko, funtsezkoak eta arruntenak azturak dira. Esan bezala, horiek aldarazteko lehendabiziko urratsa haien zentzua agerraraztea da: zein den zentzua, hura aldatze aldera. Esaterako, erdaraz egiteari (edo euskaraz ez egiterari) zentzurik antzematen ez badiogu, aldatzen saiatuko gara, aldatzeko trebatu eta ahalduntzen ahaleginduko gara, beti ere zentzu-gabezia tamainakoa bada. Beraz, edozein joera-aldaketaren hasieran honakoak kontuan hartu beharko genituzke:

- **Aztura edo ekintza** izaerako praktika den: aztura izanez gero, haren zentzua zein den aztertu beharko genuke, agerian uzte aldera; dena den, kontuan hartu azturak zentzu ihartuak dituztela, ez dira errez ulertzen, baina egin egiten dira: hala egin dugulako beti, hala garelako gu...
- **Zentzua** agerian duenean, edo agerian uzten lortu dugunean, zentzu hura zein den, nolako garrantzia duen subjektuarentzat eta zein den hura artikulatzeko erabiltzen duen markoa argitu beharko genuke: zein arrazoibide darabilen hura esplizituki defendatu edo argudiatu behar duenean edota nola ikustarazi ahal diogun modu negatiboan edo zentzugabean egiten duena.

- Garrantzia (balioa) **artikulazioaren** mendeko aldagaia izaten da, beraz, artikulazioari ekin beharko genioke: birdefinitzeko praktikaren esangura beste marko batean, beste kode baten bidez, eta horrela bestelako artikulazioak lortu.

Abiapuntua jokalaria sozial ororen egokitze beharra da: oro har, denok omen dugu inguru batean arauzkoa den portaerarekin bat egiteko joera. Denok omen dugu, halaber, inguru jakin batean hitz egiten den hizkerarekin bat egiteko joera, baina dibergentziak egon daitezke. Dibergentzia horien eragileak hizkuntza-praktika jakin batzuen alde erabil daitezke, ikus dezagun zein diren eta nola aprobetxatu:

- **Bitartekari metalinguistikoek** (egoera linguistikoari buruzko irakurketa politiko, ideologiko, soziokultural eta pragmatiko-psikologikoek) beste hizkera bat harrarazi diezagukete. Gure kasuan: noiz eta nola agertu nahi dugu euskaldun? Eta zein hiztun mota: jaso, herrikoa, kontsuetudinarioa, bestearekiko sentibera, porrokatua..? Mailak daude horretan: erregistroa, dialektoa, mintzaira. Ekinbidea: bitartekari galgarriak detektatu eta neutralizatu, lan diskurtsiboa bultzatu nahi den mintzaira edo hizkeraren alde (kapital bihurtu, esaterako, beste kapital batzuekin artikulatuz).
- **Gaitasuna** behar dugu aldaera eta egokiera gauza ditzagun. Konpetentziak bideratzen du hizkera-hautaketa. Ekinbidea: gaitasun hura lor dezan jendea trebatu, irakatsi, eta gaitasun nahikoa zein den birdefinitu (konpetentzia egoerari egokitu behar zaio, jardunen arabera zer den konpetente izatea).
- **Egoeraren definizio** anitz izan daitezke, eta ez komun edo orokor bat; hitz egin ahala, adostu genezake zein den egoera, baina askotan nor bere definizioari eusten dio... Dena den, praktika linguistiko hutsetik definitzen ez bada (horrela egiten da: faktikoki adierazita) baliabide eta bitartekari metalinguistikoak sartzen dira tartean, hortaz, haien eta definizioaren arteko lotura oso estua da. Ekinbidea: egoera zein den argi utzi, iragarri eta normalizatu: ez keinu, ez mezu ihartuen bidez, hobe berez esanguratsu eta adierazgarriak diren praktiken bidez. Praktika horiek dute normaltasuna (ohiko zein arauzkoa) definitzeko indar handiena.

Alderdi horiek kontuan harturik, eszenatoki posibleen tipologia bat antolatu dezakegu (noski, tokian tokiko azterketa beharko genuke tipologia aplikatzerakoan). Aldagai bakoitzari balentzia bat ezarri diet (positiboa: euskara erabiltzea bultzatzen du; negatiboa: euskara erabiltzea eragozten du). Balentzien konbinazioek esango digute kasuan-kasuan zein den ekinbidea, aurreko guztia kontuan harturik zer egin beharko genukeen jendeak euskaraz jardun dezan (ahaztu barik, eragite-prozesua urraska doala eta portaera-aldaketa beti izaten dela aurrera eta atzera doan espirala).

bitartekari meta-linguistikoak	gaitasuna	egoeraren definizioa	Eszenatokiak eta ekinbideak
+	+	+	<i>Euskara arauzko portaera nagusia. Hiru aldagaiak</i>

			<i>bere horretan mantendu.</i>
+	+	-	<i>Egoeraren definizioa aldatu beharko da. Egoera horretan arauzkoa euskaraz egitea dela ikusarazi eta sentiarazi, hartara, kontuan hartu zentzuaz esandakoa, baina kontuz "egoera" definitzeko aldagai asko dago eta.</i>
+	-	-	<i>Gaitasuna landu behar: jendea gaitu, euskara ikasarazi bitartekari metalinguistikoak erabilia (gehi, egoeraren definizioa, baina erreza izan daiteke bitartekari metalinguistikoak lagun)</i>
-	-	-	<i>Erdaraz arauzko portaera nagusia: lehendabiziko urratsa, bitartekari metalinguistikoak landu.</i>
-	-	+	<i>Ez dirudi egoera erreala (?)</i>
-	+	+	<i>Ez da egoera erreala (izan liteke, euskaraz egin behar eta ahal dutenen kasuan: derrigor egiten dute?)</i>
+	-	+	<i>Hainbat tokitan/kasutan, euskararen aldeko ideologiak lagun. Jendea gaitzea lehentasuna.</i>
-	-	+	<i>Ez dirudi egoera erreala (?)</i>

Aldaketa aktibatzekeo tipologiak eszenatoki orokorrak erakusten dizkigu, esku hartu aurretik, ordea, eszenatoki horietan gertatzen diren hizkuntza-praktikak aztertu behar ditugu.

5. Komunikazio-jardueretan zer dagoen jokoan: azterketa integralerako ereduak

Portaera jakin bat aldatu edo bideratu nahi denean, kontuan hartu behar da lehendabizi portaera hari zentzua ematen dion "jendarteko eszenatokia". Hasiara beraz "eszena" osoa da. Eta ezin da bistatik hura galdu: zentzuaren nolabaiteko marko minimoa hor egoten baita. Baina eszenen osagaiak ere aletu eta banan-banan aztertu behar dira esku hartu nahi badugu. Horretarako izango dira orain aurkeztuko ditudan ereduak.

1. Aztertu: jakin eta ekin, ekin eta jakin

Lehenago, ordea, hainbat ohar. Azterketa bikoitz bati buruz ari gara, batetik hiztunen jokoak edo harremana aztertu nahi dugu, hura komunikazio-praktika bat izango da, eta han hizkuntza-praktika jakinak izango ditugu; baina bestetik, "interbentzio-eragilearen ekintza" dugu, hura ere komunikazio-ekintza da eta bestea bezala hainbat xede ditu, alegia, esku hartu eta aurreko egoera eta praktika horiek aldatu nahi dituen komunikazio-praktika bat da. Beraz, eredu hauek berdin erabil ditzakegu hiztun arrunten hizkuntza-praktikak aztertzeko zein "interbentzioen" egokitasuna eta eraginkortasuna baloratzeko.

Bestaldetik, ez ahaztu inoiz ez dagoela modu erraz eta berehalakorik jokaera aldatzeko, ez jendarte-aldaketan eta are gutxiago aldaketa bideratua sortu nahi dugunean. Aldaketa oro norberaren baitatik pasatzen da: egoera jakin batean zerbait egiteko edo ez egiteko sumatu ahal dugun zentzua da portaera-eragile nagusia eta zentzu hura, ikusi dugunez, maiz izaten da "(berez) denaren indarra", baita "kanpotik ezarritako behartzearen indarra", baina maiz ere, gatazka baten emaitza izaten da. Guztietan, jendarteko harreman, lan eta lehen emaitza. Halako eszenatokian ez dago jokoz kanpotik behatzen duen "jakile tekniko neutroa" izaterik. Jakitea ez da inoiz kanpo-behatoki batetik behatzaile neutro batek lortzen duen "informazio objektibo" baten metatzea. Ez da horrela ezta jakintza teoriko hutsa lortu nahi dutenen kasuan, eta jakina ezin da izan horrela "esku hartze aldera" sortu nahi den jakintzaren kasuan. Jakitea beti izaten da ekiteko modua. Ez da bide neutrorik eta praktiketatik aldendua: eskua sartu eta errealitatea mugituz eta eraldatuz ezagutzen dugu. Eta horri erantsi behar zaio, jorratzen ari garen gai honetan jendeak baduela protagonismoa, baduela eragimena eta ekimena. Hortaz, hizkuntza-praktikak aldatu nahi dituen hizkuntza-praktiketako beste "solaskide" bat baino ez da. Agian autoritate-kapitalik lortu du, hura ere komunikazio-jokoan bitartez, baina jokoan bertan berretsi beharko du besteen gain eduki dezakeen "eragimenerako kapital onartu hura". Hitz gutxitan: ekintzaile saiatu eta sinestuna izan beharko da, kidez kideko harremanetan, xede bat argi edukita: pertsoneri eragingo die eragin hura beretzat har eta eurez burutu dezaten, bestela esan, kanpotik motibatu beharko ditu, motibazio endogenoa sor dakien.

Azken ohar bat motibazioaz: motibazioa eta motiboak bereizi behar dira, motiboak oso "lausoak", "mugagabeak" edota "ezezagunak" izan daitezke (urrunak eta psikologikoki arrotzak), motibazioa, berriz, argi agertzen zaio subjektuari. Badaki indar eragile hori duen ala ez, sentitzen baitu: motibazioa "subjektu-arteak motiboak lantzearen ondorioa" da. Esan daiteke, motibazioa dela subjektuek motiboak sentitzea eta sentitze haorrek mugiarazten dituela. Ez da eragite-prozesurik esan eta hitz hutsez izan daitekeenik, eragitea "egitea" da, "arartekari aditu" eta "hiztun arruten" arteko joko berri batean jokatzeko, hain zuzen.

2. Komunikazio-praktikak aztertzekeo bi eredu

Esan bezala, bi eredu hauek "egoeraz kanpoko tresnak" baino ez dira. Baliagarriak gogoetarako, norberaren jardunaz gogoeta egin eta hura aldatzeko, zuzentzeko edo hobetzeko. Baina ez dira "jardunean bertan behar diren gaitasun eta jakintza praktikoek ordezko".

Eredu psikosozialtzat jo dezakeguna azalduko dut aurrenez. Ereduaren abiapuntua "kontzientzia eremua" da, edo lehen ikusi bezala, jokalarien zentzu eta egoeraren definizio inplizitua. Eragozpenik ez badago norberaren praktika-ildoan aurrera egiteko, intentzio eta definizioak inplizitu geratuko dira; eragozpenik egonez gero, agerpenak, aurkezpenak eta negoziazioak hasiko dira: esplizitu egingo dira jokoaren aldagaiak. Azterketa psikosozialak bigarren jokaldi horretara jotzen du beti: esplizitu egin behar ditu praktikei eragiten dieten oharkabeko aldagai horiek. Abiapuntua "kontzientzia-eremua" bada ere, azterketaren bidea "inkontzientzaren eremuan" garatuko da. Aldagai posible guztiek agerian uzteko asmoz. Ikus ditzagun.

Hartzaile eta igorle funtzioak. Komunikazioari buruzko eredu psikosozialetan bai igorlea bai hartzailea, zentzudun mezuen bidezko elkarrekintza batean trukatu behar diren harreman poloak dira. Ez dago hartzailea edo igorlea izaterik, hartzaile eta igorle jardungo dugu aldi berean. Bi funtzio horietatik mezua eratu eta eragina gauzatuko dugu. Funtzio bakoitzaren ezaugarriak:

Igorle ari garenean: motibazioa aztertu beharko dugu, hau da, komunikazioari ekiteko asmo eta helburua zein den, hitzunaren intentzioa da hori. Igorleak hartzaile ibiliko denari buruzko irudi bat du: nahi duen edo espero duen hartzaile tipoa. Eta, hartzaileak ere bere aldetik, igorleari buruzko irudia izango du. Komunikazioa hasteko elkarri onartu edo aitortuko diote solaskide izaera eta "igorle / hartzailea" paperak banatuko dituzte: elkarrekin erabakiko dute zein den igorlea eta zein hartzailea eta zein unetan trukatu behar diren jarduera horiek. Jendarte-bizitzan, egia esan, aurrez antolatutako komunikazio-protokolo asko ditugu, formula edo erritual asko erabaki horiek hartu behar ez izateko. Baina giltza beti izaten da elkarri aitortutako *solaskide-gaitasuna*. Eta beti ere, askatasun eta hautamen nahikoa dugu; kodea eta komunikazio-prozesuaren urratsak erabakita egon arren, kanalari buruz, kodeari buruz, mezuaren erakuntzari buruz, baldintza inplizituei buruz, mezuaren modulazioari buruz, hartzaileari buruz... hainbat eta hainbat gauza ebatzi ahal dira.

Hartzaile ari garenean, berriz, mezua jaso eta deskodetu behar dugu, dugun gizarte-lekutik eta jarrera psikosozialetatik egin behar ere. Hartzaileak erabakiko du noiz egingo duen "feedbacka", hau da, noiz eta nola hasiko den elkarren atzeraeragina. Baina, solaskideen arteko jokoak bi funtzioak baino konplexuagoak dira beti. Hartzaileak, esaterako, igorlearen aurreikuspenetan esku hartzerik du eta aldatu ahal ditu harremana hasi orduko: azken finean, egoeraren eta solaskidearen irudia (definizioa) behar dugu gure intentzioari dagokion "praktika-modua" hautatzeko eta egokitzeko.

Arestian komunikazioaren funts psikologikoa ulertzeko "eremu" kontzeptua erabili dut; ezagun denez, Lewini (1959) zor diogu kontzeptu hau. Gutxi asko honela planteatuta: pertsonak organismoak diren aldetik, tentsio eremu batean bizi dira, tentsio batzuk positiboak eta besteak negatiboak izaten dira, positiboen aurrean organismoak horiek baliatzeko portaerari ekingo dio, negatiboen aurrean, ostera, saihestekoari. Eskema bera erabil dezakegu komunikazio-egoera batean, eta ondorioz, galdetu beharko genuke: zer ari da baliatu nahian eta zer alboratu nahian komunikatzen hasi den subjektua? Joko bikoitz hau da komunikazioaren izaera psikologikoen ezaugarrien kausa, berari egotzi behar zaizkio aldagai psikologikoak eta kognitiboak (Abric 1996):

Komunikazio-funtzioen aldagai Psikologikoak (autokontzeptuari lotuak)

- *Proiektzio mekanismoak*: bestearen pentsamendua eta gogoia norberarenarekin berdindu edo asimilatu (bestearen berezitasuna eta ezberdintasuna ukatu); nork bestearekin duen portaera eta jarrera zurrizteko hari ezaugarri negatiboak egotziko dizkio.
- *Defentsarako mekanismoak*: disonantziaren teoriari jarraituz, subjektuak hainbat defentsa-mekanismo ibili ahal ditu komunikazioetan, bere "autokontzeptua" eta "posizio soziala" arriskuan dagoenean (norberaren balioak, arauak, ideologia eta abar zalantzan jartzen direnean). Hainbat defentsa-mekanismo daude: hautemate hautatzailea, informazioa jasotze interesatua, oroimen hautatua, iturriaren agintea ez onartzea...

Aldagai kognitiboak (egoeraren azaltze eta interpretatzeari lotuak)

- *Sistema kognitiboaren* funtzionamendua: informazioa jasotzeko eta antolatzeko sistema hezkuntzan landutako trebetasunen araberakoa da. Informazioa jasotzeko eta antolatzeko erak, bideak eta abar.
- *Irudikatze- eta ezagutze-sistemak*: Komunikazio prozesuetan errealitate komuna eraikitzen da, oinarritzko irudikapenak partekatuz hain zuen: nork bere buruaz duen irudia (jendaurrean eta bakarkakoa), besteari buruzko irudia, komunikazioaren egoerari buruzko irudia, inguruaren gaineko irudia...

Aldagai sozialak:

- *Rolak eta estatus sozialak*: jendarte-estatusa jendarte-posizioei emandako balioa da, bertatik ari da subjektua eta kontuan hartu behar da norberaren rola kokapen horretatik zehazten direla; solaskideen estatusak elkarrekiko jarrerak eta rola zehazten dituzte. Rola bereganatzeko arazoak egon ohi dira: rola arteko gatazka eta rol-zurruntasuna, hau da, rolari lekuz eta garaiz kanpo atxikitzea.
- *Aurreiritziak eta estereotipoak*: komunikazio-partaideaz eta egoeraz dugun irudia estereotipoek eta aurreiritziak mugatzen dute, harremana goitik behera alda daiteke euren eraginpean.

Kodea eta kanalaren aldagaiak: Kodea eta kanala egoerari, helburuei eta solaskideari egokitu behar zaizkie, komunikazioa eraginkorra izango bada. Komunikazio-praktika bakoitzeko kode ideal bat omen dago, egoerari hobekien egokitzen dena, nonbait. Baina, kode oro anbigua eta adiera anitzekoa denez, ahal den neurrian "arteztu" behar ditugu bi ezaugarriok. Beraz, bai kodea bai kanala solaskidearen neurrikoak izango dira, komunikazio argia eta ulergarria egite aldera, baina zein da solaskidea? zein da komunikazio-egoera? Ohiko hizkuntza-kodea aldatzean, kodea baino askoz gehiago aldatzen dugu: jokoan gauza asko jartzen dugu eta horietako batzuk oso "pertsonalak" dira: norberaren estatusa, esaterako, gaitasunak eta norberaren irudia jokoan egon daitezkeelako. Bestalde, kanalari dagokionez, Psikologia Sozialaren ikuspuntutik kanala ez da soilik bidea edo euskarria, komunikazio-harremanaren inguruko ezaugarriak ere kanal dira.

Atzeraeragina ("feedback"). Prozesu honek ematen dio komunikazioari bere izaera zirkularra. Solaskideen elkarrekintza bideratu eta elkarren erantzunak egokitzen ditu. Aurrez ezarri ahal da, ekin baino lehen bestearen erantzuna kontuan hartzen baitugu eta horren arabera geure portaera moldatu.

Testuingurua dimentsio anitzekoa da. Lehenengoa, denborak eta lekuak mugatutakoa. Horretan, solaskideen kokapenez gain, komunikabideek ere eragina daukate espazio / denboraren eragina zehazten. Bigarrena, jendarteko ingurua da (rolak, estatusak, estereotipoak eta eragin sozialaren fenomenoak...). Hirugarrena, kultura- eta ideologia-testuingurua: kodea, maiz, kulturak edo ideologiak ezarritako molde bezala ulertu ahal da. Hau dela eta, pragmatistek bereizi egin dute komunikazioaren barne egokitzapena (diskurtso eta hizkuntzaren arabera egoki) eta kanpo egokitzapena (jendarteko egoeraren arabera egoki). Hemen gogoratu behar dut komunikazio-praktikak beti izaten direla "indexikalak", hau da, zeinuen esanahia tokian tokiko erabaki behar dela (adibide sinplea, "hemen" esanda, zer esan nahi dugu? Esatariaren tokian egon beharko genuke jakiteko, edo testuingurua ezagutu). Eta ondorioz, kanpo-eragina jokoan bertan gertatzen ari denaren arabera egokitzeko da. Sperber eta Wilsonen honela definitu zuten testuingurua: "*Komunikazio emanaldi bat interpretatzeko erabiltzen ditugun baldintza guztien multzoa da. Testuingurua konstruktua psikologikoa da, entzulearen munduari buruzko sinesmen guztien azpimultzo bat. Jakina, entzulearen sinesmen horiek dira, munduaren benetako egoera baino areago, emanaldiaren interpretazioa bideratuko dutenak. Zentzu honetan, testuingurua ez da inguru fisikoaren gaineko informazioa ezta aurreko emanaldiei buruzkoa ere, testuingurua harago doa: geroari buruzko usteak, zientziaren hipotesiak edo erlijio sinesmenak, oroitzapen bitxiak edo kultur arau nagusiak, entzulearen uste eta pentsamenduen gaineko hipotesiak... guztiak dira interpretazioaren eragile.*"

Azken aipu hark bidea ematen digu hurrengo eredura pasatzeko. Hymes eta Gumperz pragmatisten "**speaking**" eredia. Komunikazio-etnografia egiteko txantilo bat da proposamen hau, eta horregatik deritzot interesgarri "euskara aktibatzeke ekimenean" tresna analitiko gisa. Hurbilpen pragmatikoa da Hymesena, alegia, erabileraren nondik norakoa aztertu nahi duena eta bertan funtsezkoak dira lehen ikusi dugun indexikalitate kontzeptuaz gain, tokian tokiko komunikazio-praktiken moldaera eta egokitzapena eta solaskideen erreflexibotasun pragmatikoa eta "*accountability*" (egindakoa kontu emateko gaitasuna).

Hymesek zortzi osagai bereizi zituen komunikazio-ekintza batean, "*s.p.e.a.k.i.n.g.*" eredian:

- *Setting* (egoera): markoa (non eta noiz) eta agertokia (markoaren kultura-zehaztapena, marko psikologikoa: harreman mota, solaskideen ezagutza eta aitortza...)
- *Partaideak*: agertokian parte hartzen duten guztiak eta haien identitate sozialak eta atxikimenduak eta abar, kontuan hartu komunikazio-praktiketan horiek ere jokoan direla.

- *Ends*: asmoz edo nahita lortutako helburuak eta nahi gabe eman diren helburuak. Hau da jokoan dagoena (intentzioa: *enjeux*)
- *Acts-sequences*: adierazpenaren edukiak eta estiloak, gaitasun aldetik ikusita eragimen-tresna gisa uler daitezke.
- *Keys* (tonua): adierazteko modua eta ekintzaren izaera (jolasgarria, serioa...)
- *Instruments*: kanalak (bidea eta erabiltzeko modua), hitzen forma (hizkuntzaren jatorri historikoa, kodeen agerpena eta desagerpena, erabileraren berezitasuna; erregistroa, aldaerak...)
- *Norms*: elkarrekintzarako arauak (elkarrizketa arautzeko tresnak) eta ulermenerako arauak (mezuak egiteari eta hartzeari eta integratzeari eragiten dioten jendarte- eta kultura-azturak eta irudikapenak).
- *Genre*: poemak, ipuinak, mitoak, esakuntzak, gutunak, eta abar.

Hymesen eredua hobeto ulertzeko, "*speech economy*" ideiarenekin baitan kokatu beharko genuke. Hymesek uste zuen komunikazio-baliabideak eta praktikak hainbat talde, sare eta instituziotan antolatzen direla eta horren bidez, batzuek balio eta kapital izaera dutela eta beste batzuek, ordea, estigmatizatu edo baztertzeko direla, eta ospe oneko eta eraginkortasun handiko estilo, genero edo bitartekoak ez daudela edonoren esku eta azkenik, hizkuntzek eta diskurtsoek eginkizun berezia dute desberdintasun eta estratifikazio sozialak legitimatzeko orduan. Bourdieuren ikuspegiaren ondorengoa dugu hau. Eta uste dut oso familiarra egingo zaigula "hizkeren ekonomia" hau.

6. Bukatzeko gogoetak

Uste dut hizkuntza-praktika aldatzen edo bideratzen ahalegintzen garenean oso argi eduki behar dugula zer lortu nahi dugun, hau da, zer eskatzen diogun jendeari. Arin esan, jendea aldatu nahi dugu, ohiturak alda ditzala eskatzen diogunean bere burua alda dezala eskatzen diogu jendeari, are gehiago askotan aldaketaren eragilea bera izan dadila esaten diogu: ohitura-aldaketan aktibo izan dadila (bere burua aktibatu dezala eta ekin diezaiola euskaraz egiteari, esaterako). Eskatzen dugun hori legitimozat jotzen dugu jende gehiena "sinbolikoki" horren alde dagoelakoan. Baina ez dugu askotan ulertzen zer dela eta, "esplizituki eta diskurtsiboki" alde dagoenak ez du modu berean jokatu. Jokaeraren natura ez dugu ulertzen. Ez da jendearen kontradikzioa edo koherentzia eza, jokaera ikusi dugun bezala aldagai askoren mende dago. Ez dira hutsalenak gaitasuna edota praktikaren izaera, ezta egoeraren ohiko definizioak: *habitoak* eta *habitak* gara, baina horiek denak zentzua deritzogun bizi-loturaz eginda daude.

Eraginkor izan nahi badugu azterketa xeheak behar ditugu, kasuan kasukoak, eta haietan aktore edo jokalarari bakoitzak zer jokatzen duen jakin. Esku hartzea, ordea, ezin da izan kanpo-aktibazio hutsa (hori ere izan behar du, jakina), jendea erakarri beharko dugu "proselitismoa", alegia, euren izan beharko lukete eragile aktibo: azturari balio erantsi bat jarritz, ekintza eta proiektu bihurtuz. Euskararen erabilera, jakin badakigu, ohitura mugatu edo lokalizatu batzuk zabaldu eta noranahi eramatea da, horretarako jendeak hizkuntza-gaitasuna behar du, praktika horiek zentzuz bizi behar ditu (duin eta eroso, esanguraz eta adierazgarri) eta hala denean, egoera abegikorra topatzen badu euskaraz egingo du. Bestela, egoera eragozpena bada, erreaktantzia piztu eta praktikei eutsiko die jendeak soilik eta zentzu handia badaukate, alde batera utziko zentzu gutxi antzematen badiete.

Bibliografia oharrak

Saiatu naiz testua erreferentzien kargatik libre uzten baina aitortu eta gainera gomendatu behar dira testuan esandakoen sorburu, inspirazio edo zuzeneko egileen lanak, honako hauek dira (gaika):

Praktiken zentzua eta izaera:

Garfinkel, H. (1967): *Studies in ethnomethodology*, Englewood Cliffs, Prentice-Hall.

Hannerz, U. (1992): *Cultural Complexity: Studies in the Social Organisation of Meaning*. Columbia University Press, New York.

Bourdieu, P. (1972): *Esquisse d'une théorie de la pratique*, Librairie Droz, Ginebra.

Bourdieu, P. (1979): *La distinction. Critique sociales du jugement*, Minuit, Paris.

Bourdieu, P. (1980): *Le sens pratique*, Minuit, Paris.

Bourdieu, P. (1982): *Ce que parler veut dire. L'économie des échanges linguistiques*, Fayard, Paris.

Goffman, E. (1959): *The presentation of self in everyday life*, Doubleday Anchor, New York.

Goffman, E. (1967): *Interaction Ritual*, Anchor, New York.

Goffman, E. (1981): *Forms of talk*, University of Pennsylvania, Pennsylvania, AEB.

Eragina, gutxiengoaren eragina:

Moscovici, S. (1981): *Psicología de las minorías activas*, Morata, Madril.

Mugny, G. (1981): *El poder de las minorías*, Rol, Bartzelona.

Komunikazioaren eredu psikosoziala:

Abric, J.-C. (1996): *Psychologie de la communication. Méthodes et théories*, A. Colin, Paris

Ghiglione, R. & Beauvois, J. L. (1981): *L'Homme et son langage*, PUF, Paris.

Ghiglione, R. (1986): *L'homme communiquant*, Colin, Paris.

Sperber, D. & Wilson, D. (1989): *La pertinence. Communication et cognition*, Editions de Minuit, Paris.

Komunikazioaren etnografiaz:

Blommaert, J. (2005): *Discourse: A Critical Introduction*. Cambridge University Press, Cambridge.

Gumperz, J. & Hymes, D. (1972) (arg.): *The ethnography of communication*, Holt, Rinehart & Winston, New York, lehenengoa 1964koa.

Gumperz, J. (1982): *Discourse Strategies*, Cambridge University Press, Cambridge.

Hymes, D. (1967): "Models of the interaction of language and social setting" in *Journal of Social Issues*, 23.

Hymes, D. (1972): *Towards communicative competence*, University of Pennsylvania Press, Philadelphia.

Hymes, Dell. (1983): *Essays in the History of Linguistic Anthropology*. John Benjamins, Amsterdam.

Hymes, D. (1996): *Ethnography; Linguistics, Narrative Inequality: Toward an Understanding of Voice*. Taylor and Francis, London.

Silverstein, M. (2003): Indexical order and the dialectics of sociolinguistic life. *Language & Communication* 23: 193-229.

Hizkuntza-merkatuaz:

Brown, P. & S. Levinson (1978): Social structure, groups and interaction. In K. Scherer & H. Giles (eds) *Social Markers in Speech*. Cambridge: CUP. 291-342.

Irvine, J. (2001): 'Style' as distinctiveness: The culture and ideology of linguistic differentiation. In P. Eckert and J. Rickford (eds) *Style and Sociolinguistic Variation*. Cambridge: CUP. 21-43.

Gehiago sakontzeko, nire testu hauek dituzue eskura:

Komunikazioaren Gizarte Psikologia (seigarren atala, komunikazioaz, baita 10 edo 12. atalak ere), helbide honetan testu osoa eskuragarri duzue:

http://www.buruxkak.org/liburuak_ikusi/183/komunikazioaren_gizarte_psikologia.html

El poder en busca de autoridad (batez ere, laugarren atala):

<http://books.google.es/books?id=eQBQGA41r08C&printsec=frontcover#v=onepage&q&f=false>



Geltoki kalea, 18 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
T_ (+34) 943 376 171
udaltop@udaltop.com · www.udaltop.com